

## NERE FEDEA

Galdegina izan zaut, beste batzueri bezala, aldi huntako kronikan, nere fedearen lekukotasuna agertzea. Ez da ariketa errexer leter gutitan, bainan entseatuko naiz...

### *Nere sinesmena*

Lehen lehenik erran nezake sinestearen beharra senditzen dudala. Nihaurek, nere ahal hutsez eta nere esku diren giza-ahalbideak baliatuz (irakurketa, irrati, telebista...), ez dut ene bizitzaren nundik-norakoak eta munduaren erabilmoldeak sortzen dauzkidan galdereri erantzun egokirik eta asegarririk aurkitzen.

Giza Adimenak edo Arrazoinamenduak (Zientziak, Filosofiak, Jakituriak...) ez du funtsezko galdera horieri erantzun osorik ekartzen. Ondorioz, *Erantzun osoa* nere ahalez goragoko *Dimentsio* batean dagola sinestera behartua naiz. *Erantzun* hori, *Dimentsio* hori, *Jainkoa* deitzen dut.

Bestalde, egunero egiten dut perfekzio-ezaren esperientzia edo bizipen samina eta latza: asmatu xede edo proiektua gauzaterakoan, ohartzen naiz (saminki) asmatutik obraturat izigarriko aldea edo distantzia dagola. “*Egin nahiko nukeen ongia egitera ez naiz heltzen, aldiz egin nahiko ez nukeen gaizkia egiten dut...*”

Orduan nere galdera hau da: nundik izan dezaket Perfekzioaren intuizioa, Perfekzio hori *nunbait* existitzen ez bada? Ondorioz, nere giza-ahalmenez kanpo dagon bainan intuizioz jabetzen naizen *Perfekzio* hori *Haratagokoa* dela sinestera behartua naiz. *Perfekzio* hori, *Haratago* hori, *Jainkoa* deitzen dut.

Beraz, *Jakituriatik Sinesmenerako* urrats edo jauzi *kalitatiboa* egiten dut, behaturik bezala, giza ahalmena mugatua eta motzegia gertatzen zaidalako.

Bainan ez da hori guzia. Hortan mugatuko balitz, horrelako Jainkoa guziz urruna eta arrotza geldi laiteke, *deista* edo “*jainkoista*” soilik ninteke.

**Sinesten dut** Jainkoak, kreatora izaiteaz gain, eskuhartze zuzena duela gizadiaren historian, sorkari orenen historian, harreman pertsonala eta bakarra duela gizon-emazte bakotzarekin. Sinesten dut ere Jainkoa gizadiari agertu edo “errebelatu” dela, agertzen edo “errebelatzen” dela; eta “**Errebelazioa**”ren bidea edo moldea Nazareteko Jesus dela, “Seme hautatua” (“Kristo”). Sentsu hortara ulertzen dut nik Jesu Kristo Jainkoaren “**Hitza**” dela.

Hori erranik, aitortu behar dut dudak baditudala segurtamenak baino gehiago, bereziki “*Gaizkia*” (edo *Gaitza*)ren arazoaren aintzinean: hori misterioa gelditzen da. Misterioa izanik ere, ez dezaket pentsa pairamena “Jainkoaren nahiz” gertatzen dela, eta are gutiago pairamena dela “salbamenerako” biderik hoberena, hots “zenbat eta pairamen handiagoa eta mereximendu gehiago”... Ez, ez, eta ez !!! Hori desbideratze edo “perbertsioa” da. Espiazioaren logikari lepoa bihurtu behar zaio. Gizakia ZORIONERAKO egina da; pairamena berez txarra da, guziz txarra, eta ez da Jainkoaren nahiz gertatzen, errekontruz edo ezinbestean baizik.

### *Bekatua eta barkamena.*

Zer ez da erran eta zer ez dugu entzun bekatuaz ?... “Okerkeri” sobera segur ! Zer da azkenean bekatua ? Neretzat, bekatu bakar bat dago, hau da: *maitasunean faltatzea*, bai bere buruari buruzko eta bai aldeko lagunari buruzko maitasunean faltatzea. Nere egiten dut osoki Joxe Arregiren ikuspegia: errua(edo hobena)ren eta gaztiguaren mailatik atera eta erantzunkizunera behar da pasatu. Eta barkamenak orduan beste sentsu bat hartzen du. Erran nahi du: “*ez egin kalterik zure buruari eta zure lagunari, zure bikoteari, zure familiari, eta gauza zira kalterik ez egiteko. Sinets ezazu zure burua baitan. Sinets ezazu on izateko zure gaitasunean eta zoriontsu izateko gaitasunean. Eta zoaz sinesmen horren indarrez aintzina*”. Hori da barkamena, hori da Jainkoa !

### *Zeruko Esperantzaren lekuko*

Zerua ez da « han », « nunbait », « gaínean » edo « lanoetan » galdua dagon espazio bat, leku eder bat. Ez. *Zeru* hitza erabiltzean, nolabait, « betetasuna », « osotasuna », « betikotasuna », « mugarik gabea », « beste zerbait handiagoa » adierazi nahi du; presunari *presunago*, gizakiari

*gizakoiago* izaiten laguntzen dioten bertuteeri igorritz: maitasuna, askatasuna, zoriona, bakea, errespetua, justizia, batasuna, elkartasuna...

Badakigu aipatu « osotasun » hori ez dela hemen, mugen artean, erabat gauzatuko ; badakigu osotasun hori ez dagoela gure esku, bainan lurtean zeruaren eraikitzaile izaita gure ardura da.

Eta nik hementxe kokatzen dut nere **Abertzaletasuna** : **Pertsonaren Duintasuna** eta **Herri guzien burujabetasuna** oinarritzat eta helburutzat dituen heinetikan, Abertzaletasuna da, neretzat, Esperantza hori gauzatzeko giza-egitasmo egokiena eta burutuena. Beste gisa batera erranda, **ni abertzalea naiz, kristaua naizelako** (hobeki konprenitzen dut gaur Piarres Lafitte-k klasean egun batez erran zukuna: "*ni kristaua ez banintz, anarkista ninteke*").

Eta honek forma edo esparru arras konketuak hartzen ditu : garai huntan bereziki Bakegintza, Adiskidetzeta, Bizikidetzeta...

### ***Bestelako Eliza***

Vatikanoko II. Kontzilioak arlo ainitzetan fruitu asko eman badu eta emaiten segitzen badu, erran daiteke Eliz ereduaren aldaketa ez zuela burutu. Gertatzen ari den desklerikalizazioa, gogoz ez bada bortxaz onartu beharko da. Bainan nola ez pentsa Jainkoaren Izpirituaren eraginez gertatzen ari dela? Nola ez pentsa, Eliz erakunde klerikala inharrosten duten gertakari eta faktoreak “aldien ezaugarri“ direla, Izpirituak amesten duen Eliza berriaren ezaugarri?

Izpirituaren bultzadaren eragile izaiten lehiatu behar gira, pentsatuz Elizaren berrikuntza, ez bakarrik Eliza beraren onerako, bainan gizartearen eta kreaizio osoaren onerako izango dela.

***Peio Ospital***  
***2014-03-17***